

Genero identitateak ulertzen. Gizarte eta hezkuntza ikuspegietatik gerturaketa



Eka. 29 - Eka. 30 2026

Kod. H04-26

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 29 - Eka. 30 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Irakaskuntzako profesionalentzat jardueraren eskola-ordu kopurua

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaro honen bidez genero identitate ezberdinetara hurbilketa egitea bilatzen da, beti ere hezkuntza eta gizarte ikuspegietatik. Horretarako hainbat atal jorratuko dira:

- Generoaren eraikuntzan parte hartzen duten faktoreen eta horrek gizartean duen eragina ezagutza ezinbestekoa da. Gainera, gaur egungo errealitatera gerturaketa egin ahal izateko, genero identitatearen ibilbide historikoa ezagutzea beharrezkoa izango da.
- Generoak sexuarekin duen lotura ukaezina da, eta sarri arazoaren jatorri bezala identifikatu izan den arren, hau guztia ulertu ahal izateko, ikuspegi sexologikoa eskeiniko da.
- Eskola da gizarteak duen eragile sozializatzailearik handiena, pertsona guztiak pasatzen baitira eskolatik. Horregatik, generoaren sozializazioan eskolak duen erantzukizuna aztertuko da. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan indarrean dagoen trans pertsonen eta hauen familiei laguntzeko protokoloa jorratuko da.
- Gainontzeko gizarte eragileak ezagutzea ere beharrezkoa da, bereziki trans pertsonen familiak eta horiekin lan egiten duten erakundeak. Kasu honetan, NAIZEN elkarteko ordezkariak izango dira egiten duten lanaren eta aurkitzen dituzten oztopoen inguruan hitz egiteko.
- Alor ezberdinetako profesionalak izango ditugula kontuan hartuta, bakoitzak bere jakintza arloan edo eremu profesionalean trans pertsonen aurkitu ditzaketen zailtasunen inguruan hausnarketa egitea beharrezkoa da hauek identifikatu eta proposamenak eskaini ahal izateko. Gogoeta hori egitea bilatuko da ondoren egokitzapenak luzatuz.
- Azkenik, testigantzen eta bizitza istorioen indarrak baliatzeko asmoz, trans pertsonen eta hauen familiekin mahai-inguru bat proposatzen da esperientzia hauek lehen pertsonan ezagutu ahal izateko.

Helburuak

Genero identitatea zer den ulertzea.

Trans errealitate ezberdinak mahaigaineratzen dituzten faktoreen inguruko kontzientzia hartzea.

Hain beharrezkoa den Ikuspegi sexologikoa eskaintzea.

Trans identitateek egunerokotasunean aurkitzen dituzten oztopo zenbatezinetaz jabetzea.

Gizarte aldaketa bat bultzatzeko, eremu ezberdinetan aurrera eraman daitezkeen aldaketa/ekimenak proposatzea.

Trans errealitateak ezagutzea.

Lankidetzak



Programa

2026-06-29

08:45 - 09:00 Erregistroa

09:00 - 10:30 “Zer da generoa? Nola eraikitzen da? Zein da genero identitatearen ibilbide historikoa?”

Hizkuntza: euskara

Olatz Etxebarria Perez de Nanclares | Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) - Irakasle eta ikerlaria

10:30 - 12:00 “Generoaren eragina sexualitatearen begirada binarioan”

Hizkuntza: euskara

Aritz Resines Ruiz | Xamurrak Aniztasuna - CEO

12:00 - 12:30 Atsedena

12:30 - 13:30 “Trans identitateak Hezkuntza Sistematan txertatzeko gakoak”

Hizkuntza: euskara

Olatz Etxebarria Perez de Nanclares | Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) - Irakasle eta ikerlaria

13:30 - 14:30 “EAEko ikastetxeetarako protokoloa, ikasle transei eta haien familiei laguntzeko”

Hizkuntza: euskara

Maria Victoria Fernandez Roldan | Berritzegunea - Protokolo arduraduna

2026-06-30

08:45 - 09:00 Erregistroa

09:00 - 10:15 “Trans haur eta gazteak familian”

Hizkuntza: gaztelera

Aingeru Mayor Martínez | Naizen - Sexologoa

10:15 - 11:15 “Hezkuntza eraldatzen”

Hizkuntza: gaztelera

Olatz Etxebarria Perez de Nanclares | Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) - Irakasle eta ikerlaria

11:15 - 11:45 Atsedena

11:45 - 13:00

“Zeintzuk dira trans pertsonen gure jakintza arloetan aurkitu ditzaketen oztopoak?
Zer egokitzapen egin ditzakegu oztopo hauek arintzeko?”

Hizkuntza: euskara

Olatz Etxebarria Perez de Nanclares | Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) - Irakasle eta ikerlaria

13:00 - 14:30

Mahai ingurua: “Trans errealitateetara gerturaketa, Trans pertsonen testigantzak lehen pertsonan.”

Aingeru Mayor Martínez | Naizen - Sexologoa Hizkuntza: euskara

Eder Iturralde Agirre Hizkuntza: euskara

Luken Ekaitz Oyarbide McKilip Hizkuntza: gaztelera

Nora Estensoro San Martin Hizkuntza: euskara

Enara Mendoza Gayarre Hizkuntza: euskara

Zuzendaritza



Olatz Etxebarria Perez de Nanclares

EHU

Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea eta ikerlaria da, eta Psikodidaktikan doktorea: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak, Euskal Herriko Unibertsitatean, Harvard Unibertsitatean nazioarteko egonaldiarekin. Magisteritzan Diplomatua, Lehen Hezkuntzako Gradua eta hiru aipamen ditu: Heziketa Fisikoa, Atzerriko Hizkuntza Ingelesa eta Pedagogia Terapeutikoa. Hezkuntza Berezian gehiago sakontzeko asmoz, Orientazio eta Esku-Hartze Psikopedagogikoan Masterra burutu zuen. 17 urteko lan esperientzia du Hezkuntzako arlo ezberdinetan, Euskal Herrian, Estatu Batuetan eta Asian. Bere ikerketa-lerro nagusiak honako hauek dira: Genero-Identitatea, Hezkuntza Premia Bereziak, Hizkuntza zein Kultura Anitzeko Hezkuntza-Inguruneak eta Heziketa Fisikoa. Inpaktu handiko aldizkari zientifikoetan argitaratu du, eta hizlaria izan da nazio barneko eta nazioarteko kongresuetan. Aniztasunaren eta benetako inklusioaren defendatzaile sutsua da.

Irakasleak



Nora Estensoro San Martin



Olatz Etxebarria Perez de Nanclares

EHU

Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea eta ikerlaria da, eta Psikodidaktikan doktorea: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak, Euskal Herriko Unibertsitatean, Harvard Unibertsitatean nazioarteko egonaldiarekin. Magisteritzan Diplomatua, Lehen Hezkuntzako Gradua eta hiru aipamen ditu: Heziketa Fisikoa, Atzerriko Hizkuntza Ingelesa eta Pedagogia Terapeutikoa. Hezkuntza Berezian gehiago sakontzeko asmoz, Orientazio eta Esku-Hartze Psikopedagogikoan Masterra burutu zuen. 17 urteko lan esperientzia du Hezkuntzako arlo ezberdinetan, Euskal Herrian, Estatu Batuetan eta Asian. Bere ikerketa-lerro nagusiak honako hauek dira: Genero-Identitatea, Hezkuntza Premia Bereziak, Hizkuntza zein Kultura Anitzeko Hezkuntza-Inguruneak eta Heziketa Fisikoa. Inpaktu handiko aldizkari zientifikoetan argitaratu du, eta hizlaria izan da nazio barneko eta nazioarteko kongresuetan. Aniztasunaren eta benetako inklusioaren defendatzaile sutsumena da.



Maria Victoria Fernandez Roldan

Berritzegunea

Titulación Académica: Magisterio. Diplomado Internacional Violencia de Género. Postgrado Igualdad de Género. Técnico Formación Igualdad. Hezkidetzan esku-hartzen ikastaroa. Experiencia profesional relacionada con la igualdad de género y la coeducación Asesora en el Berritzegune de Irún desde el curso 2001-2002. Referente en convivencia e igualdad de género (coeducación). Llevo a cabo el seminario de Convivencia y Coeducación. Asesoro a los centros en lo que se refiere a la gestión de la convivencia y la coeducación en general y también respecto a la elaboración, puesta en marcha, revisión y evaluación de los Planes de Convivencia y Coeducación. Realizo formación del profesorado en los centros en torno a convivencia y a coeducación e imparto algunos cursos de verano en la UPV (Bizikasi

(acoso escolar) y aprendizaje cooperativo).



Eder Iturralde Agirre

Eder Iturralde Agirre (Errezil,2000) Euskal Ikasketetan graduatua, egun Euskarako irakaslea da institutuan eta Sexologiako masterra ikasten ari da. Jaiotzean emakume izaera esleitu bazioten ere, 2018an hasi zuen trantsitua. Harrezkero, Naizen elkarteko kide da, eta institutuetan zein bestelako jardueretan hitzaldiak ematen ibili da.



Aingeru Mayor Martínez

EHU

Sexólogo formado en la Escuela Sexológica Sustraia (2001) y en el Instituto de Sexología Incisex (2011). Imparte charlas y cursos de divulgación, entre otras cuestiones, sobre sexualidad infantil y su acompañamiento. Autor del libro “Niñas y niños” (Ed. Litera, 2016) y del Proyecto de Educación Sexual Básica del mismo nombre (www.niñasyniños.com). Investiga, divulga y es autor de diversos materiales didácticos sobre transexualidad infantil. Fundador y miembro de Naizen, Asociación de familias de menores transexuales. Doctor en Informática (2007) por la EHU-UPV y profesor del Departamento de Lenguajes y Sistemas Informáticos de la EHU-UPV. Por último, pero no por ello menos importante, padre.



Enara Mendoza Gayarre



Luken Ekaitz Oyarbide McKilip

Kaixo, nire izena Luken Ekaitz Oyarbide-McKillip da, Estatu Batuetakoa naiz, 19 urte ditut, eta iazko uztailean etorri nintzen Euskal Herrira bizitzera. Pertsona transen eskubideen aldeko defendatzaile izan nahi dut. Genero binarioaren kontzeptuak denoi nola eragiten digun azaldu nahi nuke. Asko gustatzen zait idaztea, eta noizbait generoari buruz dakidanari buruzko saiakera bat idatzi nahiko nuke.



Aritz Resines Ruiz

Aritz Resines Ruiz, Sexologia, Migrazioak eta Generoan Masterra egina, adin guztietako Sexualitate Hezkuntzan eta profesionalentzako Sexologia Formazioan esperientzia handia duena. Aniztasun sexualaren aldeko Samurrak Aniztasuna elkarteko militantea.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2026-06-29 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	61,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	74,00 EUR
Donostia Kultura	74,00 EUR
Elkar	74,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	74,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	74,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa